

## 2.SEGMENTAZIOA

Proiektu honek hiru bezero-segmentu nagusi ditu.

Lehenik eta behin, zigarro-muturrak biltzeko ontziak batez ere erretzaileei zuzenduta daude. Segmentu honen kasuan, helburu nagusia kontzientzia ekologikoa sustatzea da, erretzaileek espazio publikoetan sortzen duten hondakinen eragina murrizteko.

Bigarrenik, erakunde publikoak dira beste bezero-segmentu garrantzitsu bat. Izan ere, espazio publikoen garbiketa eta hondakinen kudeaketa haien ardura da, eta proiektu honek zigarro-muturrak jasotzeko zerbitzua eskaintzen die, jarduera hori modu eraginkorragoan eta jasangarriagoan gauzatzeko.

Azkenik, bildutako muturrekin sortutako birziklatutako papera ikasleei, ikastetxeei, enpresei eta bestelako erakundeei zuzenduta dago. Segmentu honen helburua da eguneroko erabilerarako produktu jasangarri bat eskaintzea, ingurumenarekiko kontzientzia handituz eta ekonomia zirkularra bultzatuz.



